

Toponimia bizia dela eta

Asko dira oraindik lekuizenak ahoz jasotzen diren bezala idatziz erabili behar direla esaten dutenak. Ongi da ahozkoa hizkuntzaren aldakuntzen berri jakiteko lekuko diren aldetik. Baina era jatorra jakiteko beharrezko zaigu agiri zaharretara jotzea. Horrela ezagutu genezazke deformazioak non dauden eta aldakuntzok noraino onartu behar diren.

Euskal deiturak, gehien gehienean, idatziaren iraupenez era hobeak gorde dizkugute ahoz iritsi zaizkigunak baino. Eta ikasbiderik aski bada euskara batua-
ren kontra ahozko hizkera jartzen digutenentzat ere. Idatzia idatzirik gelditzen bai da eta ahozko hitzak haizeak daramazki.

Eman ditzagun gure geografi guzian gertatzen zaigunaren adibide soil batzuk. Gehienetan, toki izenak eman izan du baserri izena eta honek deiturarena. Adibide soil batzuk jartzera noa eta gero bakoitzak egin beza berekiko barnegoeta.

Eibarren adibidez, Erdi Arotik Arexita (Arejita), deitura eman zuen baserria oraindik han dago, baina gaur egungo ahozkeran Arikitxa da; Kutunegieta, Kutunitxa. Geroagoko batzuk, Egizkoaga

esate baterako, Eiskua (lehen silaban diptongo eginaz) eta azken-
nerako Ixkua-ra bihurtuz; Asola-
lartza, Asuliartzza; Urkidi, Urki, eta
antzerako laburpenak eta alda-
kuntzak, exenplo guti batzuk jar-
tzearren, baina deiturak hor jar-
raitzen dute, bai herri berean
zein aspalditik munduan zehar
zabaldurik.

Elgoibarren ordea, Artasoro
zena, orain Artaso; Galburusoro,
Galuso; Osoro, Otso; Otsoerrotta,
Otxorrota eta abar.

Elgetan, Egiluze, Egoluze;
Olaegi, Oley; Sagastigutxia, Saas-
titxu; Udaiaga, Ureixa edo Uleixa;
Uriburua, Uruburu; Urruxolaegi,
Urrejaldei eta abar.

Gaur Bergara parte den An-
gizarren, Lopealdaoste, Lopald-
doste; Arregi, Arley. Olaberrian,
Aranguren, Angu eta horren ara-
bera Aranguren-txiki, Angu-txiki.

Oiartzunen, Baringarate, Bain-
keta; eta Herdi Arotik gaur arte
nolako aldakuntzak izan dituen-
aren adibiderik politenetakoa han
bertan dugu, Beloaga torretzat
ezagutzen zena, XVII. mendean
Feloaga deitura zen eta geroago
Peluaga eta tokia bera, K. Mitxe-
lenak Pelua bezala jasoa, handik

laster A. Leibarrek Pelu soilik bil-
du zuen.

Irunen bertan, auzo ezaguna
da Ibarla, guziei hala entzun izan
diet, baina joan zen mendera arte
mapa eta agiri guzietan Ibarrola
agertzen da.

Deitura horietako inork aurki-
tuko ote luke bere jatorria agiriza-
harrak kontutan hartu ezik?

Euskal Herri guzian zehar ger-
tatzen zaigun fenomeno bera da.
Beraz, on da ahozkerazkoa ja-

soztez, baina ez pentsa era jatorra
duenik agiriak aurkitu arte.

Hori baino hobea ez dena, zera
da, duela lau edo bost urte Gi-
puzkoako Diputaziokoek Jaizkibe-
len egin dutena, hango bideak
markatzean, Gaztarrotx, Martitz
eta era hortakoak jarritz, han ber-
tan oraindik Gaztarrotz, Martitz
ahoz erabiltzen den tokientzat. Ea
noiz ohartzen diren euskaraz ez
dekitenek ezinezko dutela -tz eta
-ts, ez ahozkatu eta ez entzun ere.

J.S.M.